

Aimar Olaizola pilotaria izan da protagonista XVI. Sagardo Berriaren Egunean. Horrenbestez, hasiera eman zaio txotx denboraldiari. *Benito*
15/01/2007

Sagardoaren sakea

Erik Gartzia Astigarra

Aimar Olaizola pilotariak eman dio hasiera Astigarra-gan Gipuzkoako sagardo denboraldiari. Iaz sukaldari batek izan zuen sagar uztaren zukua lehendabizi dastatzeko aukera, Andoni Luis Adurizek, alegia. Aurtengo protagonistak, hala ere, zerikusi handia du sagardoarekin, Asier anaiarekin batera sagardotegi bat baitauka Hernanin (Gipuzkoa). Denboraldia estreinatzeak «ilusio handia» egiten diola adierazi du Olaizolak, «Gipuzkoa eta Euskal Herriarentzat oro har egun handia delako».

Sagardogileak eta erakundeetako ordezkariak bat etorri dira sagardoa definitzeko garaian: nortasuna finkatzen du. Zorione Etxezarraga Astigarra-ko alkateordeak sagardoarena «sinbolismoz beteriko errituala» dela esan du, eta «errespetuz» betetzeko eskatu die bai herrikideei eta bai kanpotarrei.

Astigarra da sagardoaren hiriburu. Eta hori frogatzeko, adibide bat: prentsaren aurreko protokoloaren ondoren, Aimar Olaizolak sagarrondo bat landatu du Sagardoaren Etxearen ondo sagastian. Andoni Egaña eta Sebas-

tian Lizaso bertsolariek bina bertso bota dituzte. Egañaren bigarren bertsoaren azkeneko bi puntuek hau diote: «(...) *progreso hori ez bedi izan / sagarrondoan kalteko / lekua izan dezala hazi / ta frutua emateko*».

Andoni Egañaren hitzek ondoren etorriko zena iragarri dute. Izan ere, urteko lehen txotx egitera Petritegi sagardotegira abiatu baitira lagun guztiak. Petritegirako errepidea konpontzen ari dira, eta horrek zaildu egiten du sagardotegirako sarbidea. Batez ere behin-behineko semaforoak. Gainera, eraikitzen ari diren autobidearen zutabeek inguruari xarma kentzen diote.

Petritegiko sagardotegian egiten dute azkeneko urteetan lehenengo txotxa. Kazetari eta argazkilarik andana dago alde batean, batzuk aldamio batean igota. Beste aldean, berriz, Aimar Olaizola, sagardogileak, eta alor askotako hainbat gonbidatu. Erdian, aldiz, dantzaria, txalapartariak eta txistulariak. Ttamtakun hotsaren ondoren, dantzariak Agurra dantzatu du, Olaizolari eta atzean duen upelari begira. Ondoren, upela ireki du, eta Aimar Olaizolak sagardo txorota mugatu du edalontziarekin. Orduan egin du sagardoaren aurkezpen

ofiziala: «Hau da aurtengo Gipuzkoako sagardoa».

Kamerariei begira jarri da, argazkia egin diezaioten. Ez behin bakarrik. Alde guztietara eman du buelta. Bigarren sagardo tragoa ere edan du, eta argazkiarako berriz jartzeko eskatu diotenean, «beste bat?», esan du, irribarre batekin.


Ondoren, Etxezarragak esan bezala, «sagardoaren errituala» hasi da. Olaizolaren atzetik joan dira gainontzeko guztiak, prozesio bat balitz bezala. Bazkari ederra zain dute denek.

Uztarik handiena 30 urtean

2008ko sagarraren uztaz azken hiru hamarkadetako handiena izan da. Guztira, hamar milioi kilo bildu dira, eta horiekin, hamahiru milioi litro ekoitzi dira. Uztaz onak izateko, hiru faktore batu dira: iaz egin zuen eguraldi ona, sagarrari kalte egiten dioten zomorrorik ez egotea eta iazkoa uztaz urtea izatea —bi urtean behin gertatzen da hori—.

Sagardun sagardogileen partzuergoaren arabera, aurtengo sagardoak kolore berdea du, tonu horiekin. Sagardoa oso «usain gozokoa» da, kutsu zitrikoarekin.

Kalitatezko zigilu propioa aurtengo sortzea da sagardogileen erronka nagusia.



Aimar Olaizolak eman dio hasiera txotx garalari. JON URBE / ARGAZKI PRESS